

# ARRASATE: GERRAOSTEKO GOSEA



1936ko gerraren ondorioak  
asko izan ziren.  
Gerra ostean errazionamendua  
ezarri zuten eta gose garaia izan zen.

Une latz haiek bizi izan zituztenen  
lekukotasunak jasotzen dituen  
ibilbidea dugu hau.

**Gerrako Ahotsak**  
proiektuan jasotako  
testigantzetan oinarritua.



testigantza eta  
informazio gehiago  
online mapan



## 1 GERRAOSTEKO GOSEA



**Lekukoa: Bixente Azkarate**

Gerraostean, gose handia pasatu zuten Bixenteren etxean. Hasieran, dirua egon arren ez zegoen jatekorik; eta, gero, jeneroa iritsi zen, baina dirua falta zen. Errazionamenduko ogia nolakoa zen.

## 2 OKINDEGIAK ETA ERRAZIONAMENDUA



**Lekukoa: Elbira Berriotxo**

Gerra denboran, herriko denda batzuk itxi egin zituzten. Errazionamendua jarri zutenean, dendetan ilara luzeak, orduetakoak, egoten ziren janaria eskuratu ahal izateko. Azkarate okindegia etxe ondoan zegoen.

## 3 "AUXILIO SOCIAL"-AREN EGOITZA



**Lekukoa: Joxe Arriaran**

Arrasaten gose larria ezagutu zuten, jendea hiltzerainoko bestekoa. Falangisten "Auxilio Socialen" banatzen zen errazionamendua.

## 4 ALONDEGIA GERRAOSTEAN



**Lekukoa: Inazia Llodio**

Gerra ostean, Uribarrin eta Santa Agedan baziren errota, baina baserritarrek ez zuten garirik; entregatu egin behar izaten zuten.

## 5 UDALEKO GESTIOAK BASERRIKO PRODUKTUEN TRUKE



**Lekukoa: Eusebio Okina**

60 pezeta ordaintzen zen arrautza dozena bategatik, eta arrautza batekin egiten zen zazpi lagunentzako tortilla. Baserritarrek "Recurso de caseríos" delakoarekin ordaintzen zituzten Udaleko gestioak.

## 6 GUARDIA ZIBILEN KUARTELA: KUPOAK



**Lekukoa: Jerardo Mondragon**

Eskolatik irtendakoan, errazionamenduko jakiak hartzera joaten zen. Jenaroren etxea esaten zioten eraikinean nazionalak kuartela eduki zuten. Marmitekin etxera zihoala, kuartelean sarrarazi zutenekoa kontatzen du.

## 7 ESTRAPERLOKO OGIA GARMENDIA OKINDEGIAN



**Lekukoa: Juli Berezibar**

Errazionamendu garaian, Adrian Garmendiaren okindegian estraperloan egiten zieten ogia jaten zuten.

## 8 LANTEGIAN GOSEA PASATZEN



**Lekukoa: Felix Ajuria**

Elman lanean zebilenean, amak gosaria ekarri zion Felixi, baina esnea galtuta zegoen. Esnea botatzera zihoala, berarekin lanean zegoen mutikoak ez botatzeko esan zion. Hark edan zuen minutuko esnea.

## 9 ERROTAK ITXITA GERRAOSTEAN



**Lekukoa: Milagros Ertzilla**

Gerraostean garia udaletxera eramatera behartuta zeuden. Garia estraperloan ehotzeko Aramaiora eramaten zuten, gaeuz, astoan kargatuta, basorik baso.

## 10 ESTRAPERLOAN JANARI BILA



**Lekukoa: Pedro Agiriano**

Irina eta patata ekartzen zuten estraperloan Arabatik. Patata-zorroak trenetik bota etxe inguruan, eta gaeuz astoarekin jasotzen zituzten. Aitak Arabatik astoarekin ekartzen zuen irina.